

BALIABIDEAK

Gure negozio-ereduak ondo funtziona dezan, beharrezkoak izango ditugun aktibo nagusiak deskribatzen hasiko gara, izan ere, hauek gabe ezinezkoa litzateke negozioa aurrera eramatea. Behin funtsezko baliabidearen bitartez, baliozko proposamena garatu, bezeroarengana iritsi eta beraiekin harremana mantendu eta diru sarrerak lortu ahalko ditugu.

Hainbat baliabide mota bereiz daitezke; batetik, fisikoak (instalazioak, bulegoak, ibilgailuak, makinak, sistema informatikoak...), bestetik, intelektualak edo ukiezinak (markak, patenteak, jabego ezagutza, datu-baseak), jarraian, giza-baliabideak (enpresa edo erakunde batean lan egiten duten pertsonak), eta, azkenik, finantza-baliabideak (eskudirua, kreditu lineak...).

Gure kasuan, baliabide nagusia fisikoa izango litzateke, hau da, lokala, instalazioak edukitzea baita premiazkoena. Horretarako, lokala alokatzea da lehenengo finkatu beharko duguna. Horrez gain, lokala hornituta egongo denez, beharrezkoa izango dugu hornikuntza eskuratzea, hau da, lokalean jarriko ditugun altzariak, besteak beste (sofak, aulkiak, telebista, kuxinak...). Bestalde, gure zerbitzua erabili ahal izateko beharrezkoa izango den beste baliabide fisikoa sistema informatikoa izango litzateke, erreserbak zein bezeroekin kontaktua aplikazio bidez egingo ditugu eta. Gainera, lokalean egongo den salmenta-makina guk kudeatzea erabaki genuenez bertako produktuen kontrola jarraitu beharko dugu, horiek ere gure enpresaren baliabideak izango dira eta. Ez hori bakarrik, streaming plataformak eta jolasteko kontsolak ere gure baliabide dira, izan ere, gure bezeroen erosotasuna bermatzeko beraien esku jarriko ditugu, behar izanez gero erabili ahal izateko.

Enpresa guztietan bezala, giza-baliabideak ere garrantzitsuak izango dira, baliabide hau gu geu eta gure kideak izango ginateke. Izan ere, bezeroek guran konfiantza izan behar dute eta beraz guk ezagutzak izan behar ditugu euren segurtasuna bermatzeko, besteak beste, garbiketan. Garbiketa funtsezko baliabidea izango da gure enpresarentzat, izan ere, baliabide hau gabe oso zaila izango litzateke eskaintzen dugun zerbitzuarekin aurrera jarraitzea.

Finantza baliabideak ere eduki behar dira kontuan, izan ere, besteak beste, langileei ordaintzeko beharrezkoak dira. Gure kasuan funtzio nagusia hori izango da, ez baitugu kreditu linearik eskatu, adibidez.

Azken Aldia